

AULKIA (GFA-051024)



Baserriko aulki hau, GFA-051024 sigladuna, Gordailura (Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa) eramango diren Fermin Leizaolaren bilduma etnografikoaren elementuetako bat da. Haren tamainak eta altuera txikiak erakusten dute su baxuaren ondoan egoteko aulkia zela. Egilea ezezaguna den arren, badakigu artisau lokal batek egingo zuela, edo erabili zuten baserriko kideren batek berak. Jatorrizko eserlekua, hurritzez egina, puskatu egin zen noizbait, eta konpontzeko alanbrearekin palmazko saski bat lotu zioten. Saskia eskuetan eramatekoa da (ez da, adibidez, lepasaski bat, izenak esaten duen moduan, lepoan eramateko pentsatua dagoena) eta erosketak egiteko eta gauza arinak garraiatzeko erabiliko zen. Bere materialak pista garrantzitsu bat ematen digu haren jatorriaren inguruan: palmaz egina dago, eta ez zegoen palmarik euskal herrian. Nahitaez, saski hau erositako izango zen. Jatorrizko hurritzezko eserlekua, berriz, oso ohikoa zen baserri munduan, egur honen

malgutasunak oso erabilgarri egiten zuelako (Igartubeiti Baserri Museoa, 2017).

Aulki mota hau egurrezko aulkiak baino erosoagoa da, eserlekuaren malgutasunak gorputzera egokitzea ahalbidetzen baitu. Aulkiaren atzeko egiturak ere forma ergonomikoa dauka, bizkarra haren aurka jartzerakoan erosoago izateko. Logika berdinari jarraiki, aurreko egituraren burukoak apur bat borobilduta daude, ertzak ez enbarazu egiteko eseritzerakoan. Aulkia muntatzeko daratulu batekin zulatu eta gero elkartu ziren zati ezberdinak, eta ahalik eta sendotasun handiena lortzeko egituraren alde garrantzitsuenetan iltzeak ere jarri ziren. Aulkiaren markak atal batzuk (egurrezko egitura) zinta zerra batekin egin zela erakusten dute. Zeharragak edo langetak, ordea, eskuz landuak dira.



Erabilerari dagokionez, ohikoa zen etxeoandreak nahiz baserriko beste kide batzuk, nahiz laguntzera etorritako auzokoak, orduak ematea horrelako aulkietan eserita, artoa aletzen edo antzeko jarduerak burutzen. Momentu hori, lan egiteaz gain, ipuinak eta berriak kontatzeko unea zen. Izan ere, telebista, irrati edo egunkaririk gabeko garaietan garrantzia handia zuen ahoz ahoko transmisioak. Horrelako aulkiak sukaldearekin daude lotuak, eta aipatutako elkarlanaz gain (beharrezkoa zena artoa aletzea bezalako lan neketsuak gauzatzeko) etxe emakumeen eguneroko lana (besteak beste, etxaldearentzako nahiz abereentzako jakia prestatzea) pixka bat samurtzeko balio zuten. Lan banaketa sexualaz haratago, aulkia beraren kokalekuak (sukaldea) eta kokaleku horren funtzio sozialak etxe bezala baserriak zuen antolaketari buruz erakusten digu.

Non dago hain arrunta den objektu bat, gaur egun erabiltzen ditugunen hain antzekoa, gordetzearen interesa? eta objektu konkretu honetaz haratago, zer interes du, orokorrean, kultura materiala gordetzeak? Kultura materialak ezagutzen zaila den errealitate bat ulertzea ahalbidetzen du:

Jendearen bizimodua eta egunerokotasuna. Historia erakusten digutenean, gizarte osoen dinamikak aurkezten zaizkigu, haren funtzionamendu orokorra, baina ezer gutxi dakigu gizarte horren konprezioaz, haren errealitate zehatzetaz, gizarte hori gorpuzten zutenen bizitzetaz. Honen arrazoietakoa bat, pentsa daiteke, gizarte askoren eguneroko bizitzari buruz jakiteko zailtasunari dagokio, idatzizko dokumentu edo haiek dokumentatu zituen norbaiten ezean. Honengatik, objektu honen arruntasunean dago haren interesa, hura sortu eta erabili zutenei buruzko informazioa ematen baitugu, eta gaur egun ere erabiltzen dugun zerbaiten garapen soziala argitara ekartzen duelako. Beste era batean esanda, aulkia adibide zehatz bat da: “Adibide” hitza latinezko *audio* (entzutea, jakitea) eta bide hitzetatik dator (Mitxelena, 1974), eta, hain zuzen ere aulki honek bideak irekitzen ditu gizarte oso bat gizartearen zati txiki batetik ikusteko.

Kultura materiala kultura batek ekoiztutako objektu konkretuak dira, hau da, errealitate sozial oso batek sortutako eta beraz errealitate sozial guzti horrekin lotutako objektuak. Aulkia, horrenbestez, historian zehar gizakiak metatutako gaitasun teknikoaren emaitza da, katebegi bat, gaur egungo aulkien arbaso. Pieza soil honen atzean nekazal gizarte dago, zehazki, baserrien bidezko ekoizpen modua (Santana, 1993, 9 or.). Baserriak unitate ekonomiko ia autarkikoak ziren garaian ohikoa zen eguneroko bizitzarako beharrezko gaiak (aulkiak, saskiak, uztarriak etab.) baserrian bertan egitea eta ingurukoei saltzea. Baserrietan egin ezin ziren gauzak lortzeko zegoen merkatura joateko edo saltzaile ibiltari bati zerbait erosteko beharra. Hau da, adibidez, gure aulkia ererleku den palmazko saskiaren kasua.

Aulkia erabilera ere nekazal gizartearen ezaugarri batekin dago lotua: lan banaketa sexualarekin (Pareja Alonso eta Zarraga Sangroniz, 2006, 74 or.). Nahiz eta aulkietan edonor esertzen eta eseri izan den, emakumeei, beste lanen artean, sukaldeko lanak egotzen zitzaizkien baserrien gizarte tradizionalean, eta beraz, pentsatzekoa da hurriz eta ondoren palmaz osatutako eserlekuak ordu gehiago eman zituela emakume baserriarren azpian gizonen azpian baino.

Orain artekoarekin espero dut kultura materialak, orokorrean, duen interesa garbi utzi izana. Esan beharra dago, ordea, aulki honek baduela interes berezi bat: Konpondua izan da, oso era ageriko batean, eta konpontze horretan beste objektu bat berrerabili da. Detalle honek asko esaten du baserriko munduaz, haien baliabideetaz eta haien ondasunekiko zuten jarreraz. Gainera, saskia erositak izateak eta ez artisau lokal edo baserriar batek egin izanak baserriek merkatu zabalago batekin zuten harremana azaleratzen du.

Lehen esan bezala, aulkia abstraktutik konkretura garamatza, eta konkretua abstraktua den horren baitan dagoen heinean, osotasuna ulertzeko oso baliagarria izan daiteke. Are gehiago, euskal kulturarentzako interes berezia du (edo izan beharko luke) kultura materialak eta haren katalogatze eta zaintze egoki batek, euskal nekazal gizarte ia idazkerarik gabeko gizarte baitzen, non apaizak eta jauntxoak ziren testu bidez jendearen bizimodua erregistratzeko gai ziren bakarrak. Gaur egun arte iraun duten aulkia bezalako objektuak ere, nahiz ez liburu bat bezain erraz irakurri, iraganeko¹ mezu bezala ikusi beharko genituzke: Aulkia egin eta erabili zuten baserriarrek ez ziguten idazkerik utzi, baino haien lanaren emaitza materialak gaur egun arte iritsi zaizkigu. Esandako guztiagatik, zentzua dauka Gordailuak aulki bat gorde eta zaintzeak. Honek ere zerbait esaten du aulki hori sortu eta erabili zuten gizarteaz, baino baita gordetzea erabaki duenez ere.

¹ Nahiz lan honetan asko aipatu dudun iragana, nabarmentzekoa da oraingo kultura materiala ere gorde eta zaindu behar dela, bestela, etorkizunean ez delako existituko.

Bibliografia:

Fermin Leizaolaren testigantza.

Igartubeiti Baserri Museoa.(2017). Igartubeitiko baratzea urrian.

Mitxelena, Koldo. (1974). El elemento latino-románico en la lengua vasca. Fontes Linguae Vasconum.

Santana, Alberto. (1993). Baserria. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Pareja Alonso, Arantza; Zarraga Sangroniz, Karmele.(2006). Bizkaiko emakumeen lanbideak eta zereginak. Atzoko eta gaurko irudiak. Bizkaiko Foru Aldundia.